



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Xabier Sabata kontratenorrek eta Francisco Poyato piano-jotzaileak Schuberten *Winterreise* bikaina interpretatuko dute Arriaga Antzokiko foyerrean

- Emanaldi hau otsailaren 14an, asteartea, arratsaldeko 19:30ean izango da eta urteko lehen seihilekoan zehar luzatuko den LIED ARRIAGAN zikloak proposatzen dituen sei emanaldietatik bigarrena da.

Bilbo, 2023ko otsailaren 10a.- Arriaga Antzokiko foyerrak LIED ARRIAGAN zikloari eutsiko dio datorren astean berriz ere, asteartean zehazki (hilak 14, arratsaldeko 19:30ean). 2023ko lehen seihilekoan sei kontzertu eskainiko dira ziklo honen barruan, piano eta ahots formatuan, eta jada bigarrena dugu hauxe (aurrenekoa Joan Martín-Royo baritonoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak eskaini zuten joan zen urtarrilaren 17an, Pedreli omenaldia egin ziotenean).

Oraingoan, errezitaldia **Xabier Sabata** kontratenor bikainak eskainiko du, **Francisco Poyatok** pianoan lagunduta. Historiako lieder ziklo handietako bat interpretatuko dute elkarrekin, Franz Schuberten *Winterreise* (Neguko bidaia, frantsesez), D. 911. Pianorako eta ahotserako 24 lieder ziklo hau autore austriarrak konposatu zuen 1827an, hil baino urtebete lehenago, Wilhelm Müllerren poemetan oinarrituta. Edertasun eta sakontasun handiko konposizioa izanik, Alemaniako musika-kulturan generoaren gailur erromantikotzat jotzen dute *Winterreise*. Lanaren transzendentziak eta garrantziak genero guztiak gainditu dituzte, eta, musikologo aditu askoren iritziz, musikaren historiako ziklorik hunkigarrienetako bat da.

Lied Arriagan zikloa

Xabier Sabataren eta Francisco Poyataren kontzertua Arriaga Antzokiak ziklo horren baitan programatutako sei kontzertuetako bigarrena da. Hurrengoa martxoaren 21ean izango da, Natalia Labourdette sopranoaren eta Victoria Guerrero pianistaren eskutik, beren Petite Mort aurkeztuko baitute.

Apirilean, 18an hain zuzen, zikloak bere jardueri helduko die berriz, Vanessa Goikoetxearen eskutik. Sopranoak, Rubén Fdez. Aguirre pianoan duela, omenaldia egingo dio Isasiri, Isasi, Bilbao-Berlín izeneko errezitalean. Bosgarren proposamena maiatzaren 23an izango da, eta Robert eta Clara Schumannen lieder musika interpretatuko dute Anna Alàs i Jové mezzosopranoak eta Aurelio Viribay pianistak.

Azkenik, Lied Arriagan zikloari amaiera emateko, David Alegret tenorrek eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak Josep Carner egile katalana gogoratuko dute Carneriana izeneko kontzertuarekin. Ekainaren 13an izango da hori.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus